

- **Entzutekuak:** Eider Varela, zarzuela abeslaria eta sopranoa
- **Zer berri:** Maisuen Etxeetako lanak hastear

soraluzeko
hamabostekaria **227.** alea
2010eko irailaren 17an

@ Pila Pilean



JOSE KRUZ EXPOSITO
Orio arraun
elkarteko presidentea



MAITE ETXEBERRIA



OSKAR ELIZBURU

KOLOREZ JANTZIA

Bajoiak uda bere eguzki hori eta laranjarekin, berde bihurtuko diren zelai gorrixkekin eta zuri eta gris izango den zeru urdinarekin.

Zertara ete datorren hainbeste kolore aipatzea galdetuko dotsak hire buruari, eztok? Antza denez, koloreek pertsonengan emozio ezberdinak eragiten jittuek, eta horiek berriz, bajaukek jokaerekin zerikusia. Koloreek guregan sentsazio batzuk sortarazten jittuek modu inkonszientean, baina leku batzuetan koloreak modu konszientean erabiltzen dittuk: ospitaleetan kolore neutroak gaixoak lasaitzeko eta jatetxeetan laranja kolorea jateko gogoa handitzeko.

Egia dok koloreak sinbolo batzuekin lotzen direla eta kultura batetik bestera lotura horien esanahia aldatzen dela: ekialdean zuria heriotzarekin lotzen den bitartean, mendebaldean, beltza dok heriotza adierazteko kolorea.

Orain arte koloreen eragina aztertzeke egin diren probak osasun, marketing eta publizitate arloan egin dittuk. Agian, beste nonbait probatzen hasi beharko ginakezirik. Zergatik ez gaur egun bolo-bolo dabilen gai batekin, su-etenarekin esate baterako? zer kolorekin josi eta margotuko gendukek?

Nik neuk ortzadar berezi batez jantziko neukek eszenatokia: zuriaren baikortasuna eta lasaitasuna, horiaren berrikuntza eta indarra, gorriaren pasioa eta desioa, urdinaren jakinduria eta konfiantza, laranjaren energia eta arrakasta, berdearen emankortasuna eta armonia, grisaren independentzia eta eskuzabalasuna eta morearen sormena eta aldaketa. Gogokolekuan aldaparik ez dagoenez, ez dok komeni bide guztiendako zirrikitua zabalik lagatzea?

“

“Su etena zer kolorekin josi eta margotuko gendukek?”

Maite Etxeberria

“

“Neuk kakalarrixaren nabar koloria ikusten jonat”

Oskar Elizburu

”

Kolorez jositta eduki jonau, bai, uda eta ez bakarrik naturak emoten doskuna begiratzeko. Ez jakinat zenbat kontatzen, baina makinabat kamiseta gorri ikusi jonak oporretan; eta ez Espaiña aldian bakarrik. Batzuetan koloriak ateratzeko moduko lekuetan ikusi jittunat, gertu gertuan!

Baiña gatozen harira... zelako koloria ikusten dotsaten su-etenari? Heuk aitatutako kolore eta esanahi horiek guztien bestelako irakurketia egin biharko jonat, daltonikuen pare, ez errepikatzeke. Neuk arazuari benetan heldu nahi ez dotsenen kakalarrixaren nabar koloria ikusten jonat, eta ez ikusi bakarrik, usaindu ere bai (ba al hekien koloriak usaindu leikiezena?) Gatazkak gorri koloria eduki jon urtietan eta urtietan, beroaren usaina, sargoriaren pisua; eta kolore beltza, ilunaren hotza, belduraren hezetasuna, aiñubiaren irristakortasuna, itsuaren noraeza...

Su-etenari ez jotsanat kolorerik ikusten, kolore berde disdiratsu daukan prozesu baten ongarririk ikusten jonat; landare horrek indarra har deixan behar beharrezko daukan ur txorrotada gardena. Eta hari ongarririx botatzeko kolore guztietako txindurrixak beharko jittunauz orainguan, batu indarrak eta koloriak, eta eraikitzen jardun.

Hik ba al dakin ilusiñuaren koloria zein dan? Begixetan ikusten dan dizdira, ez-paiñetako bris-brisa... ikusi ezin dan koloria baiña sentitzen dana. Kolore hori ikusten jonat neuk, baiña bajakiñat kakalarriz darenek ez dabela daltonikohonen kolorerik ikusteko aukerarik.

Goguan hartzeko

“Gehiengo argi batek arma guztiek baino gehiago balio du”

Karlos Garaikoetxea



GUTUNAK

**Zentzu-
gabekeria
gehiagorik
ez !**

Oporretatik bueltan gauden honatan, harriduraz eta atsekabez ikusi dugu estazioko parkean gertatu dena. Bere garaian salatu genuen udal gobernuak harturiko erabakia eta orain antzeman dezakegu erabaki horren ondorioa. Estazioko parkearen erdian izugarritzko harresia. Nortzuk izan dira proiektu hau bultzatu eta babestu dutenak? Soralezeko ezker abertzalea eta Eusko Alkartasuna. Hirigintzako batzordea ezker abertzaleak zuzentzen du, benetan ulertezina harturiko erabakia. Hainbat urtetan ez-

ker abertzalearen kritika bortitzak jasan izan ditugu gobernuan izan garenean. Berezi hirigintzako proiektuei dagokionean. Eta orain lehen aldiz gobernuan daudenean, zer eta zentzugabekeria hau. Esaten da denborak bakoitza bere tokian ipintzen duela eta kasu honetan ere berdin gertatu da. Urteetan gauza bat salatu eta orain kontrakoa egin. Zoritxarrez lan hauek ez daukate atzera bueltarik. Herritar bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

**Estazioko
parkea
hanka motz?**

Harriduraz irakurri dut EAJ/PNV Udal taldeak hazken alean idatzitako gutuna. Egi erdiak edo komeni direnak bakarrik kontatzea irakurleari ziria sartzea baita. Egia da Estazioko obren barruan biribilgune bat egingo dela eta dagoen parkearen zati bat jango dela, baina esaten ez duzuen, kentzen den zatiaren azaleraren bikoitza duen beste parke bat sortzeko asmoa dugula da. Parke honek gainera, eskolatik irteera zuzena izango du eta irisgarri-

tasun baldintza guztiak beteko ditu, kenduko den parkeak ez bezala. Soralezeko parke publiko gutxi dituela diozue eta egia da, horregatik herri erdian burutzen ari diren obrak burutu ostean, gune guzti hori oinezkoentzako izatea nahi dugu; arratsaldero, herri honetan behingoz autoen aurrean oinezkoei lehentasuna emanaz. Azkenik esan, guk moztorra karnabaletan jantzen dugula, beste batzuk gainean dutela konturatzen ez diren bitartean.

**Aitor Prieto Oregi
Hirigintza Batzorde Burua**

pit-pilean

Argitaratzailea: Pit-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pitpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larrea-tegi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pit-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pit-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Domentx Uzin
Elikadura

Oporretan beste lurralderen bat bisitatzeko dogu, eta girua eta inguruaz gozatziaz gain, janari ezberdinak dastatzen ditugu. Turismo Gastronomikuan zaliak, lurraldeko ardo eta jaki ezagunak probatzen saiatzen gara, eta normalian baino astunago jaten amaitzen dogu. Udako pozak, gabetako bihotzerriak edo bestelako arazuekin tartekatuz. Uste baino gehixago eragitten dosku elikadurak gure izaeran. Baina holako saiuek, aukera paregabia ematen doskue gure gorputza ezagutzeko; zer sartzen dogun, barruan nola eragitten doskun eta gero nola urtetzen dan. Janari astunekin, digestio astunak izaten dira baina badira kontu gehixago ezagutzia merezi dabenak be. Adibidez, jaki askok barruan metatzeko joera dauke, batzuk garbitzekua edo elikatzen laguntzekua, beste batzuk gorputza hozteko edo berotzeko ahalmena dauke, baita ezagunaguak diran lehortu/gogortu edo humeldu/biguntzeko ahalmenak. Eta garrantzitsuenak, elikatze ahalmena; gaur egun jaki askok gutxi edo ezer elikatzen gaittue eta. Jendiak gai honi erreparatzen dotsanian, zoritxarrez arazoren bat daukalako izaten da, eta elikadura aldatu ostian, hobekuntza dextente gertatzen dira zorionez! Beraz gogoz aukeratu janak, bertakuak, garbixak eta bizixak, honek sendatzen doskue gorputza eta!

((ENTZUTEKUAK))

Eider Varela, zarzuela abeslarixa eta soprana

Gazte-gaztetatik dihardu Eiderrek han eta hemen ahotsa lantzen. Musika Eskolan hasi zen kantuan eta urte batzuk beranduago, herriko abesbatzara egin zuen salto. Abesteko zaletasunak eraginda, kantu-eskolak hartzen ditu Bilbon, Nuria Orbea mezo sopranoarekin. Eider ere sopranoa da eta urtarriletik zarzuela abeslaria ere bada.

Zer dala eta zarzuela?

Abestia gustatzen jata eta edozein genero kantatzera animatzen naiz. Lazkaoko abesbatza izan da ikuskizun honen sortzailia. Kantakako zuzendarixa laguna danez, berak gonbidatu ninduan parte hartzera. Proba bat egin, gustatu eta aurrera egittia erabaki genduan danok. Urtarriletik dihardugu obra hau preparamen eta berezixa izan da. Kultura espainolian oinarritzen dan generua da zarzuela eta erronka moduan hartu dogu danok.

Oinguan bakarlari moduan ibili zara.

Herriko abesbatzan bakarlari ibili izan naiz, baina zarzuela ezberdina izan da. Nere burua gero eta ziurrago dago eta hori igartzen da ikuskizunian. Trukua zein dan be aitortuko dotsuet, publikua neri begira darguala ahaztia. Hola lasaittasunian eta egindakuakin gozatuz, emaitza ona izaten da beti...

Zer da zarzuela?

Madrileko "txulapuak" eta folklore andaluzaren nahasten dira. Attrezzua oso berezixa da eta jantzixak be oso ikusgarri eta dibertigarrixak dira. Ikusliak faroltxoz betetako eszenatoki bat ikusiko dau eta horrek obran nundik norakuak argitzen laguntzen dau. Zarzueliak alde asko dauzka: alde instrumentala, ahotsa eta berbak nahasten ditte; dekoratu berezi batekin eta antzezpena.



Lan zaila izan da?

Pertsonalki zaila ez, entretenidua. Dantza egitten be ikasi bihar izan dot, pentsau!

Hurrengo emaldixa nun?

Datorren udaberriarako emanaldi batzuk lotu ditugu. Beasainen izango da lehenengua eta handik Madrilera juango gara.

Beste ezer egitteko asmorik bai?

Kantak abesbatzakin ibiliko naiz han eta hemen. Gabonetan Ganbara orkestriakin kantatuko dogu eta Espainian zihar be ibiliko gara zarzueliakin.

"Madrileko
"txulapuak" eta
folklore andaluzaren
nahasten dira lan
honetan"

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUETAK
FILANTZARIETAK ZURE NEKAZIA
KONPRIMISORIK GABEKO AURERKORITUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa) Elizburu, 3 beheko, Sorokuze • Tel. 943 75 25 67

KM
Desing

Disainua eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Biribilgune berria “irisgarritasuna hobetzeko”

Udalaren esanetan “ikastetxera hurbildu nahi duten autoen joan etorria erraztea da biribilgune berriaren helburua”. EAJk bere aldetik gogor kritikatu du biribilgunearen eraikuntza eta aisialdirako gunearen zati bat desagertarazi, 50 m (karratu) hain zuzen ere. Udalaren esanetan, ikastetxearendako baliagarri izango diren bederatzia aparkaleku berri egiteko aukera ere emango du lan honek.

Aisialdirako espazio berria

Etxebizitza berrien inguruan 250 m (karratu)ko aisialdirako espazio berria egokituko da. Modu horretan kaltetutako parkearen ordezkoa topatu nahi du udalak eta gaineratu du eskolatik irteera zuzena izango duela aipatutako aisialdirako espazio berrira.



Regina Maztegiak legez kanpo atxilotu zutela salatu du

Abuztuaren 14an atxilotu zuten Regina, bere etxetik irteten ari zela, “hiru gizon hurbildu, plakak erakutsi, Espainiako Poliziak zirela esan eta atxilotuta eraman ninduten”. Epailaren atxiloketa agindua behin eta berriz eskatu arren, ez zioten erakutsi eta gerora ere ez du jaso. Bi egun igaro zituen ziegan eta aske utzi zuten ezer berririk leporatu gabe. Reginak salatu du legez kanpo atxilotu zutela, bere atxiloketa mediatikoki erabiltzeko. Atxiloketaren ostean salaketa jarri zuen baina oraindik ez du jarritako salaketaren inguruko erantzunik jaso.



H.H.I. matrikulazioa zabalik

Helduen Heziketa Iraunkorreko matrikulazioa zabalik dago izena eman nahi duten herritarrentzat. Interesatuak izen ematea lehenbailehen egin behar dutela jakinarazi dute arduradunek. Ikasgaiak doaneok dira. Hauek dira ikasgaiak:

- Euskara, ingelesa eta frantsesa.
- Informatika.
- Bigarren hezkuntzako graduatua.
- Unibertsitateko sarrera.
- Etorkinentzako gaztelania.
- Oinarrizko ezagutza: Irakurketa eta idazketa.
- Kultura jarduerak.

Informazio gehiagorako 943 75 30 17 telefonora deitu edo Baltegieta kaleko 18, 1 erdisotora jo.

1966an jaioetakoen bazkaria

Datorren irailaren 25ean 1966an jaioetakoen bazkaria izango dute Txurruka jatetxean. Joan nahi duenak Txoko tabernan eman behar du izena irailak 20 baino lehen.

Roke Trebiñok 100 urte bete ditu

Roke Trebiño soraluzetarrak 100 urte bete zituen joan den abuztuaren 15ean. Mendeurrena ospatzeko udaleko ordezkariak oroigarri batekin eta lore sorta batekin egin diote bisita aste honetan. Pozik hartu ditu Trebiñok opariak eta oraindik osasunez indartsu dagoela erakutsi du. Zorionak Roke!



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORLUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Lapurreta Irure auzoko enpresa batean

Irailaren 11n, goizaldeko ordu batean inguruan 55 eta 22 urteko bi gizon harrapatu zituzten Irure auzoko enpresa batean lapurretan. Lekuko enpresari arabera, hesi bateko zerraila indarrez apurtuta sartu ziren enpresa barrura. Auzokideek Bergarako Ertzaintzari abisua eman eta gero, zaintzan zebilen patruilak bertara jo eta pabiloi barrutik arrapaladan irterten zen gizon bat ikusi zuen sasitza artean ezkutatzen. Bila hasi eta bi gizonak harrapatu zituzten bertan. Beharrezko egiaztapenak egin ostean, lagunak identifikatu eta atxilotu egin zituzten.

Txurrukenen arratoiak azaldu dira

Txurruken auzoko biztanleek auzokide berrien bisita jaso dute azken bi asteotan. Brigadako arduradunak jakinarazi duenez, Serafin Atxotegi enpresa pareko kontainerrean arratoiak ikusi dituzte eta auzokideak nazkatuta brigadakoei abisua pasatu diete. Zaborrontzia erreka ondoan kokatuta dagoela eta, arratoiak bertatik atera direlakoan dago brigadako arduraduna. Pozoia bota ostean arazoa konponduko delakoan daude.



Gizarte integrazioa bultzatzeko tailerra

Gizarte Ongizate Sailak hezkuntza eta gizarte beharrak dituzten pertsonen zuzendutako etxebizitzaren kudeaketa eta gizarte integratzearako tailerra antolatu du. Irailaren 28a eta abenduaren 23a bitartean burutuko da, martitzen eta eguenetan Musika Eskolako egoitzan. Izena emateko, gizarte laguntzen bulegotara jo.

202.196 euro Maisuen Etxeak eraberritzeko

Datorren astean hasiko dira Maisuen Etxeko sei etxebizitzak eraberritzeko lanak, Jose Luis Arizaga alkateak jakinarazi digunez. "Construcciones Amaral" izango da lan hauek egiteaz arduratuko den enpresa eta lau hilabeteren buruan obra amaituta egotea aurreikusten da. Horrela, etxeen banaketa 2011ko lehen hilabeteetan egingo da. Etxeak 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairu sozialean eskaintzeko asmoa du udalak, proposamena oraindik Osoko Bilkuran onartu beharra badago ere. Etxeak eraberritzeko besteak beste, lurrak aldatu, sukaldeak berritu, gasa sartu eta zuntz optikoa sartzeko gertu lagako dira.

Etxe hutsen azterketa

Udalak 35.000 euroko dirulaguntza jaso du herriko etxe hutsen eta dauden etxebizitzaren premien azter-

keta egiteko. Horretarako, datozen hilabeteetan etxez-etxe datuak biltzen jardungo dute Udalak kontratatutako bi lagunak. Lan hori egin ahal izateko Aztiker enpresaren laguntza eta aholkularitza ere jasoko ditu Udalak. Egitasmoaren aurkezpen ofiziala aste batzuk barru egingo dute herritarrei egitasmoaren inguruko xehetasun gehiago emateko.



Datozen hilabeteetan egingo den azterketaren bitartez Soraluzen dagoen etxe huts kopurua eta beharra zenbatekoa den jakingo da.

AEKn izen emateko epea zabalik

Soraluzeko AEKk hasi du ikas-urtea. Bertan izena eman nahi dutenek irailaren 27a baino lehen egin beharko dute bulego ordutegian; martitzen, eguazten eta eguenetan arratsaldeko 19:00etatik 20:00ra bitartean. Euskaltegiak, maila guztietarako prestakuntza eta Ivap, Irale, Osakidetza, 1.2.3. mailak eta EGA hizkuntz eskaki-

zunak lortzeko aukera eskaintzen du. Horrekin batera, ikasketak autoikaskuntza bitartez egiteko aukera ere eskaintzen du. Gainera, Udalaren laguntzei esker, asistentzia onarekin ikastaroaren %75 inguru finantziatuta dute ikasleek. Informazio gehiago: 943 75 14 34 telefonoan edo AEKko egoitzan (liburutegiaren parean).

TXOKO
KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. Tel. 943 75 17 89

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

Jose Kruz Exposito

Orixo arraunketa taldeko presidentia

“Ohoria da Orixoko presidentia izatia”

34 urte daramatza Soraluzen bizitzen baina bihotza hori-horia du oraindik eta ahoa zabaldu orduko igartzen da sustraiak kostaldean dituela.

Ze egitten dau orixotar batek Soraluzen?

27 urtekin etorri nintzan lanera eta burdiniakin eta altzairuakin ezkondu nintzan! Plaentxian oso giro jatorra zeguan eta gainera deporte zalia naizenez segituan egin nintzan herrira, pelotia zala edo futbola zala. Ezberdina da baina e! Txarrena da, estropadak heldu eta danak kontra daukadazela! Orduan galdeetzen dotset, baina zu ze ekipotakua zara ba? Eta konturatzen naiz danak Orixon aldekuak dirala... Neri adarra jotziarren edozer! Nik gauza guztiak aguantatzen dittut baina Orixo ikutzia ja...

Presidentia zara iaztik. Zela amaittu dozu hor?

Jubilatu egin naiz eta badakizu ze esaten dan, jubilatatu eta gero zereginik ez! Orixoko Arraun Elkartian hauteskundiak zirala eta esan zosten ia animatuko nintzan. Eta nik, zegaittik ez? Oin Orixora asko etortzen naiz eta saltsa honetan gustora nabil. Lau urte egongo naiz, aguantatzen banabe edo ez banabe botatzen!

Ze sentitzen da jaioterriko klubeko presidente egitten zaittuenian?

Ohoria da! Hemen arraunlari izatia edo klubeko zuzendaritzakua izatia ohoria da. Erantzukizuna be bada baina merezi dau holako lanetan hastiak. Hala ta be, lehenengo permisua eskatu notsan familixari eta aurrera egitteko esan zosten. Seme-alabak plaentxiarrak dira jaiotzez baina kamiseta horixa dauke, e?

Lehen ze lan zeukazun?

Ingenieritza kimikua eta metalurgikua ikasittakua naiz. Ikasketak amaittu nittuanian SAPARA jua nintzan lanera eta 17 urte emon nittuan bertan. Ondio autopistarik be ez zeguan eta bertara heltzia ez zan bape erreza! Handik urte batzuetara nere emaztia izango zana ezagutu neban eta Plaentxiarra! Gero, Eibarren egin neban lan beste 4 urtian jubilatatu naizen arte.

“Plaentxian oso giro jatorra zeguan eta segittuan egin nintzan bertara”



Eta oin ze ardura daukazuz?

Lan honek be badittu erantzukizunak. Gainera Orixo, Plaentxia moduan herri txikixa da eta dana jakitten da. Erabaki bat alde batera hartzen badozu, beste aldian daukazuz gainontzeko danak. Eta horrekin bizitzen jakin egin bihar da! Baina nik uste girua ona dala. Gainera bertakua izanda klubeko jendia eta herritarrak lehendik ezagutzen dittut eta eurak ni be bai.

Fama haundixa dauka Orixok. Zein da kluban sekretua?

Guk lelengo banderia 1901 urtian irabazi genduan. Lehenago bazeren arraun elkarte batzuk baina Kluba 1965ian sortu zan "Club de remo olímpico" izenakin. Aulki mugikorrian ibiltzen ziran orduan. Bandera asko irabazten ziranez 1970ian pentsatu zan aulki fijua be lantzia. Orduan iraultza bat izan zan. Lelengo urtetik hasi ginan banderak irabazten. Oin be fijuan eta mobilian entrenatzen eta konpetitzen dihardugu. Bestalde, Kontxako banderia 31 aldiz irabazitta daukagu. Hamarkada guztietan daukagu baten bat, azkena 2007xan. Arrau-naz berba egin bihar badogu Orixotaz berba egin bihar dogu.

Aurten aurreikuspenak bete dittuzue?

Bai. Iazko urtia pixkat eskasa izan zan. Aurten berriz, aurreikuspenak bagenkazen, baina guk hau martxuan firmatu izan bagendu ez genduan sinistuko. Lau bandera irabazi dittugu, bat gainera preziatuena, Zarauzkua. Donostian be emon genduan erakustaldi ikaragarrixa eta lehengo egunian banderia irabazteko aukerak jua jakuzen, ze bestela bandera hori be herrira. Ligan be lider egon gara denbora luzian. Bi estropada geratzen dira, Bermeo eta Portugalete. Bi puntu atzetik gare, bandera irabazteko aukera haundixa daukagu. Eta bai, bixak irabaziko dittugu.

Zela bizi dittuzue Kontxako estropadak?

Egun ikaragarrixa da. Arranplara jua eta dan-danak han ikustia, ze giro, ze jendetza. Ambiente ikaragarrixa sortzen da. Hau bezain kirol koloretsurik ez dago, zortzi kolore finalian! Hori bai, horixa gehixen... Azkeneko txandian ostian baporiak atzetik doiazienian eta... Merezi dau!

Zelako harremana daukazue kluban artian?

Pike haundixa dago, herri bakoitzak beria. Euskal Herriko arrauna lehen Orixotarra zan, errepresentate bakarria zalako. Hiru enbarkazino bakarrik zeren eta. Oin, herri bakoitzak beria dauka eta igartzen da. Gipuzkoa eta Bizkaia bereizten hasi

gara eta hori politta da. Ez da bakarrik futbolian pasatzen.

Urdaibaik eruan dau banderia aurten. Zelako denboraldixa egin dau?

Urdaibaik merezitta dauka garaipena. Kontxa bi egunetan irabazi bihar izaten da eta bizkaitarrak meritu guztiakin irabazi dabe eta zoriontzen ditut.

Datorren denboraldixari begira ze helburu?

Oin hilabete pare bat deskantsatu eta azarua aldian hasiko dira berriz entrenatzen. Gure preparadoriak laga egingo dau bere postua eta beste baten bila gabiz. Aitatu bihar da hiru mailatan dittugula Orixoko taldiak, hazixa hor dago eta mantendu egin bihar dogu.

"Arrau-naz berba egin bihar badogu Orixotaz berba egin bihar dogu"

"Arrauna moduko kirol koloretsurik ez dago"



Iturria: Joxe Mari Olasagasti



Iturria: J.M. Olasagasti



Iturria: Joxe Mari Olasagasti

ZER TRIZTEN DOTSAZU?

ETAk ekintza armaturik ez egittia erabaki dabela jakinarazi dau.

Ze sentsazino emon dotsu ETAn komunikatuak? Behin betikua izango dala uste dozu?

TXARO LETE
Langabetua



ROSA ASTIGARRAGA
Etxekoandria



ANDONI CALLES
Mekanikua



MANUEL GALARRAGA
Jubilaua



Ba bai, esperantzakin hartu dot notizia. Benetan dabizela uste dot, nahiz gobernuari ez jakon interesatzen, izan be, jende askok dihardu gatazka honen kontura lanian eta ez jako interesatzen.

Auskalo! Benetan izatia nahiko neuke eta uste dot danok nahi dogula hola izatia. Ohittuta gare hola bizitzera, urte asko dira eta ondo legoke honek aurrera egittia.

Hola espero dot. Nik esperantziakin hartu dot, notizia ona dalako. Oin arte ez dau aurrera egin, baina ia! Aspaldixanezzanezerentzuten honen gainian eta ikusiko da zer gertatzen dan.

Ez dakitt ze esan, ze oso zaila da. Pentsatzen dot ordua dala hau amaitzeko, hainbeste urtian familixa asko dare tarteko, gartzetan be bai... Eta 50 urte eta gero ze etara dabe? Gauza gutxi, esango neuke nik.

LEHIAKETA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?



- ▶ **Saria:** Mendiko materiala

Oharra: Lehiaketako zozketa barixaku eguerdian burutuko da.

- ▶ **Irabazlea:** Ane Moreno

- ▶ **Alana Berraondo** da 225. alean agertzen zan soraluzetarra.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldizkaria@pilpilean.com

Harategia
Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu
HARATEGIA
Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49

Lakuesta
Optika
Ikusmen arazozen frogak eta argibideak
Parafarmaziako produktuak
Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

Komediak nagusi udazkeneko antzerki zikloan

Udaleko Kultura Sailak antolatutako antzerki zikloak lau antzeztan bilduko ditu aurtengoan, bi gaztekeraz eta bi euskaraz. Antzeztanetako batean Edu Ponbar soraluzetarra da aktore nagusia.

Urriaren 15ean: "Euskarazetamol". Patxo Telleriak zuzendu eta Mikel Martinezekin batera antzeztan duena.

Urriaren 29an: "Los perfectos"

Azaroaren 12an: "Kanpaiak jo bitartean", Galder Perezen zuzendaritzapean.

Azaroak 26an: "Vuelve, bigotillo, vuelve" antzeztanean Edu Ponbar soraluzetarrak Aznarren papera beteko du, ironiaz betetako kabaret satirikoan egituratutako lanean.

Sarrerak astebete lehenago kiroldegian jarriko dira salgai, 5 eurotan. Lau emanaldietarako bo-
noa, 15 euroren truke.



Iturria: Arte y fotografía

Musika eskolako ateak zabalik

Musika eskolako matrikulazioak martxan daude. Iraila osoan zehar zabalik izango da izena emateko epea. Horretarako Musika Eskolara jo edo 943 751544 telefonora deitu beharko dute. Eskaintza ia zoko bera izango da eta taldea osatuz gero, nagusiendako hizkuntza musikala ere eskainiko da.

Paralisis zerebralari buruzko hitzaldia

Burmuineko paralisia duten ume askoren bizi kalitatea hobetzen lagun dezakeen errusiar Uzlibat zirujauaren teknikaren aurkezpena egingo da lehenengo aldiz Euskal Herrian, Ulzibatzen ikasle den Alexey Repetunov, zirujau, traumatologo eta ortopedaren eskutik. Teknikari buruzko azalpenak emango ditu urriaren 1ean, 19:30ean Zinean. Hurrengo bi egunetan azterketak egiteko aukera eskainiko du. Informazio gehiago www.ulzibat.es orrian edo 677088268

Ospakizunez bete da abuztua

Andramarixak

San Roke Eguneako tortilla lehiaketan Piedad Gallastegi eta Santiago Gonzalez izan ziren irabazle. Atzetik, Manuel Morales eta Maria Mangano eta Idoia Larrañaga eta Ion Gerediaga geratu ziren. Tortilla bereziaren saria, Bittor Treviñok eta Jose Valenciak jaso zuten.



Iturria: Jesus Mari Gomez

Osintxuaren bisita

Abuztuaren 27an Osintxuko jaien hasiera iragartzera 30 osintxuar inguru etorri ziren herrira, urtero moduan, mozorrotuta.



Jendez lepo San Martzialak

Antolatzaileen esanetan, aspaldiko urteetako parte hartzerik handiena izan dute aurtengo jaiak. Domekako paella lehiaketan 12 bikotek hartu zuten parte, Oskar eta Vanezsarena izan zen paellarik estimatuen. Herri bazkarian 100 lagun inguru batu ziren.



Iturria: Igor Aldazabal

Euskal Dantzak ikasteko matrikulazioa urrian zabalduko da

Helduentzat fandango eta arin arin ikastaroarekin ekingo dio Urrats Dantza Taldeak ikasturteari. Urriaren 15ean hasiko dira. Azaroaren 12ra arte luzatuko da aipatutako ikastaroa eta ordutegia honako da: barixakuetan, arratsaldeko 19:30etik 21:00ra. Haurren dantza eskolak, berriz, urriaren 1ean hasiko dira eta eskolan eta institutuan egingo dute ordutegi zabalpena.

Mutxiko Eguna irteera

Urriaren 10ean izango da 2010. urteko Mutxiko Eguna, Arrangoitzen. Azken urteotako arrakasta ikusita, Urrats Dantza taldeak autobusa antolatu du bertaratu nahi duten guztientzat. Goizeko 9:00etan izango da irteera eta Iratxo goxodendan eman behar da izena.

23 txirrindulari Soralezeko lehenengo BTT itzulian

Irailaren 5ean lehenengo BTT itzulia egin zen San Martzialen. Guztira 25 lagunek eman zuten izena, gehienak herritarrak. Guztira 7 km-ko ibilbidea egin zuten txirrindulariek. Igor Cerrajon soralezetarra izan zen froga amaitu

zuen lehena. Aipagarria da aurreko egunetako entrenamenduetan bi lagunek min hartu eta ezin izan zutela itzulian parte hartu.

Parte hartzaileak oso gustura

Ez ohiko itzulia izan dela aipatu dute antolatzaileek. Hauen hitzetan, BTT frogak 20 km goragoko ibilbidea izaten dute eta San Martzialekoa ohikoa baino laburragoa izan da. Teknikoki ordea, zailtasun maila handiko froga izan da, parte hartzaileek aldapa gogorak jaitsi eta igo behar izan zituzten. Txirrindulariek froga oso gustura amaitu zutela aipatu zuten eta hurrengo urtean berriz errepikatzeko asmoa azaldu zuten.



Marraskilo Tour-ek ibilbidea aldatu du

Soraluzeko Mendi Taldeak Marraskilo Tour mendi itzuliaren IV edizioa antolatu du datorren irailaren 25erako. Itzuliak 35km-koluzeraizango du. Goizeko 6.00etan abiatuta, hauxe ibilbidea: Sagar Erreka-Topinburu-Gallastegitorre-Krabelinaitz-Txurruken- Ezoz bi-dea-Karakate-Atsenden txaboleta-Plaza Barrian. Bukatzeko, bazkaria izango da.

Izen-ematea

Aldez aurretik izena eman ezkerok Kutxako 2101 0062 1601 2187 1321 kontuan diru sarrera egin behar da izen-abizenak adierazita. 8 € bazkideak eta 10 € bestiak, irteeran ordaindu ezkerok 15 €. Ordainagiria erakutsiko behar da dortsala hartzeko. Informazio gehiago Mendi Taldeko lokalean (Pil-pileanekin batera), martitzen eta egunetan 19.30etik 20.30era. Edo ordutegi berean 943 75 13 04 telefono zenbakian.



2009ko irudia

Futbol Eskola sortzeko asmoa

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako Futbol Eskola sortu nahi dute Soralezeko Futbol taldeko arduradunek, futboleko jolasteko grina pizteaz gain, lehen hastapenak emateko. Mikel Calvo ibiliko da entrenatzaile lanetan. Izena emateko: 672 080279 (Alberto).

Erregionalak bi talde izango ditu

Sorako erregionala egon den eskaera dela eta bi talde sortu dira aurtentzen; A Erregionala eta B Erregionala. Guztira Sorak lau talde izango ditu aurtentzen denboraldian. Jubenil eta kadeteetan jokalariek falta direla ere jakinarazi dute arduradunek.

EMAITZAK

PELOTA

Mtz de Irujo – Merino II 22
Titin III – Laskurain 20

Mtz de Irujo – Merino II 22
Xala – Laskurain 20

Mtz de Irujo – Merino 22
Titin III – Laskurain 15

AGENDA

PELOTA

Irailak 18 zapatua,
17:30ean Adarraga pilotalekuan
Olaizola I. – Mendizabal II
Aritz Lasa – Laskurain

Irailak 26 domeka,
17:30ean Adarraga pilotalekuan
Olaizola I. – Beloki
Aritz Lasa – Laskurain

FUTBOLA

Irailak 19 domeka,
15:30ean Unben
Eibar SDA – Sora (Kad.)

Irailak 19 domeka,
11:00etan Estalan
Sora (Jub.) – Lazkao K.E.

Irailak 19 domeka,
16:30ean Estalan
Sora (Erreg. B) – Sora (Erreg.)

MENDI IRTEERA

Soraluzeko Mendi Taldeak Irimora irteera antolatu du irailaren 26an, domeka. Irteera goizeko 9:00etan izango da Estazio Kaletik.

ZORION AGURRAK



Joseba Gil
Abuztuan 29xan urtiak bete
zenitullako! Zorionak eta
muxu haundi bero bat!
Etxekuen partez!!



Hodei Calleja
Abuztuan 20xan 6 urte!
Zorionak pitxi!
Etxekuen partez!



Josu Leturiondo Garcia
Irailaren 9an 3 urte!!
Zorionak eta muxu
haundi-haundi bat
etxekuen partez.



Eñaut Cerrejon
Irailan 11n
2 urte bete ditzulako,
zorionak eta muxu haundi bat
familia guztian partez!



Miren Iosune eta Aimar Astigarraga
Uztailan 22xan eta 26xan
9 eta 2 urte!!
Muxu erraldoi bat familixian partez!



Mikel Ramos
Abuztuan 13an 7 urte!
Muxu potolo-poloto bat
etxekuen partez!



Josu Elkanouni
Irailan 13an 3 urte!
Zorionak eta muxu
haundi-haundi bat Tisa,
Zuhaitz, Asun eta
Emilitan partetik!



Roque Treviño
Abuztuan 15ian 100 urte!!
Zorionak eta muxu haundi
asko etxeko eta familia
guztixan partez!



Sugar Ostolaza
Abuztuan 10ian urtebete!
Zorionak sorgintxo!!
Beti alai eta beti politxo!
Patxuk etxekuen partez!



Claudio eta Maren Unamuno
Zorionak eta muxu haundi bat
Aitita Claudio eta Maren!
Etxeko guztion partez!



Zorionak Mari Mar!
Irailan 12xan 32 urte!
Etxekoen partez.

hildakoak

JOSE RAMON AGIRREZABAL GOMEZ
IGNACIO ALBISUA MADARIAGA
CARMEN CAMPOS MENDIKUTE
ANDRES GOMEZ HERNANDEZ
IÑIGO PLACENCIA SALAZAR



jaiotakoak

PERU GISASOLA LARREATEGI
AIZA DANIELA LAPADAT
ANE MOYA SORIA
ONAR ORTEGA ORDAX
ZURIÑE RODRIGUEZ LARRAÑAGA
NAIHA URIBARRI KARRETERO
JURDANA VICIOSA GARITANO
JONE GARITANO MIRANDA
MAIA UNAMUNO URIBETXEABARRIA



IÑIGO PLACENCIA

2010EKO ABUZTUAREN 15EAN HIL ZEN

*"Izan zarenagatik
ez zaitugu ahaztuko"*

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Beti egongo zara gure bihotzetan, maite zaitugu!



ARRATE OTAL ABARRATEGI

ELGOIBARREN HIL ZEN
2010EKO ABUZTUAREN 30EAN

*Agur esateko eguna heldu dala
esaten dozku eguzkixak...
baina guk ez dugu agur esan nahi,
laster arte baizik...
Muxu haundi bat, Arrate.*

Plaentxiako kuadrila

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Larraitz Lakuesta

KARIDADEKO SALDIA SAN MARTZIALEN

Badia 300 urte, iraileko lehenengo domekan San Martzial auzoko baserritarrak eta saldagiliak karidadeko saldia egitten dabela. Argazki hau 1985ekua da.

Saldia egitteko ohituria belaunaldiz belaunaldi pasatu da, 60. hamarkadan galdu zan arte. 70. hamarkadan, berriz berreskuratu zeban argazkixan agertzen dan laukotiak. Gaur egun, Txistuk eta Mikelek egitten dabe karidadeko saldia eta ez edozein modutan gaiñera. Tradiziñuak diño, sua gabeko hamabixetan piztu bihar dala, brontzeko galdara haundixa gau guztian sutan laga bihar dala eta modu horretan hurrengo goizian saldia edateko gertu izango dala.

Argazkixan ezkerretik eskumara:

Jabi Etxabe
Miguel Anjel Plazaola

Jose Mari Larrañaga
Eli Lakuesta Gorosabel †



IÑAKI ALBISUA MADARIAGA

2010EKO ABUZTUAREN 4AN.

*“Izan zarenagatik
ez zaitugu ahaztuko”*

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Beti egongo zara gure bihotzetan, maite zaitugu!



BIXENTE LONBIDE GOIKOETXEA

EIBARREN HILA 2010EKO UZTAILAREN 23AN.

*Atxuri kale estuan jaixo zanari,
Malan eta Maxpen hazittakuari,
Ofizios tabernarixa izan danari,
Oraintxe hor goixan dabilenari,
Gauza bat esateko daukagu hari:
Eusteko plaentxiatarra izatiari.*



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

I. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

SORALUZE

Balategieta 2

Bulego orduak:
19:00 - 20:00

Egunak:
astearte / asteazken / ostegun

Telefonoak:
Soraluze 943 75 14 34
Eibar 943 20 13 73

soraluze@aek.org

ikasi euskara eman izena

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

aek-n

www.aek.org · 902 36 22 94

MARRASKILO TOUR 2010

IV. SORALUZEKO MENDI ITZULIA

IRAILAK 25 GOIZEKO 6 etan

PLAZA BERRIAN, Bazkaria 15:00tan

antolatzailea

Izen ematea: **Kubako 21010062160121871321** kontuan diru sarrera egin (kontzeptuan, izen abizenak jarri). Frogagiria dortsala hartzeko erakutsi beharko da. Informazio gehiagorako **943751304** zenbakira deitu astearte eta osteguna **19:30etatik 20:30etara**, aldez aurretik bazkideak 8 €, besteak 10 €, litteeran 15 €
